

Donostiarron ikusmiran

Hiriko Kutxa sarien 2001eko uzta

Joan den larunbatean, urtarrilak 27, Donostia Hiriko Kutxa sariak banatu ziren udaletxean. Euskaraz, Enkarni Genua nagusitu zen antzerki arloan, «*Ostiraleko afaria*» lanarekin, eta Ixiar Rozas, berriz, ipuin arloan, «*Korronteak*» lanarekin.

Enkarni Genua donostiarra da, 58 urte ditu eta hamabost obratik gora kaleratu ditu, gehienbat haurrei zuzenduak. «*Ostiraleko afaria*», ordea, helduei begira idatzitako antzezlan da. Ixiar Rozas lasarte-



arra da, 30 urte ditu eta hainbat ipuin eta «*Edo zu edo ni*» nobela kaleratu ditu, besteak beste. Sarien epaimahaia, euskarazko lanetan, Iñaki Aldekoak, Jesus Mari Lasagabasterrek, Mari Jose Olaziregik eta Paulo Iztuetak osatu dute.


Bestalde, gaztelaz, Juan Luis Mira Alacanteko idazleak antzerki arloan irabazi du «*Mar de almendros*» lanarekin, eta ipuin arloan, aldiz, Francisco Maria Lopez Senarro zaragozarra nagusitu da, «*Sabor a Malta*» rekin.

Gizarte zerbitzuak Benta Berrin

benta Berrin Gizarte Zerbitzu Zentroa zabaldu da eta guztira, sei auzotako herritarren beharrei erantzungo die: Antigua, Igeldo, Aiete, Ibaeta, Añorga eta Zubietan. Bulego berria Salvador kalean dago eta aurkezpena joan den astelehenean, urtarrilak 29, egin zen. Bertako langileen ardura herritarrekin lehen harremana izatea eta beraien eskaerak bideratzea izango da. Besteak beste, arazo ekonomikoak dituzten herritarrekin, adinduekin edota elbarriekin lan egin ohi dute mota honetako guneek.

Alternatiba gehiago Urumeako Autobian

gipuzkoako Foru Aldundiak beste hiru proposamen aurkeztu ditu Urumeako Autobiaren Okendotegiko zatian. Jakina denez, orain arte bi ibilbide zeuden, ofiziala eta Okendotegiko auzotarrena. Proposamen berriotatik bi aurrekoen aldeak dira. Hirugarrenak, aldiz, errepidea lehengo biek proposatutakoan artean egitea aurreikusi du eta horrez gain, Donostiako sahisbidearekin lotzeko aukera izango luke.



milioi semaforoetan

Udalak semaforoak jarriko ditu Hego Intxaurrendoko Beharko-ko errotondan eta guztira, hamar milioi pezeta bideratuko ditu lanotara. Intxaurrendoko auzotarrek behin baino gehiagotan salatu dutenez, Beharkoko errotondan istripu ugari izan da. Ernesto Gasco Trafiko zinegotziaren esanetan, «*Beharkoko errotondak semaforizazio egokia izango du hilabete batzuen buruan*».

"Gauon" berriro ere

Udalak "Gauon" aisialdi eskaintza egin zuen gabonetan, eta arrakasta izan zuela ikusita, datozen bi hilabeteotan berriro ere egingo erabaki du. Beraz, batetik, otsailan eta martxoan, Anoetako Paco Yoldi igerilekuak zabalik egongo dira ostiral eta larunbat gauetz, 23.00etatik 03.00etara arte. Bestetik, ordu-tegi bera izango dute Egiako kultur etxeak eta udaletxe azpiko Liburutegi Nagusiak. Nabarmenezkoa da kirol eta kultur ikastaroak ere antolatuko direla egunotan, 29 guztira.

